



INSTITUTO CHINO DE GIPUZKOA
GIPUZKOAKO TXINATAR INSTITUTUA

PRENTSA OHARRA

300 txinera ikasle inguru aurkeztuko dira igande honetan mandarinako azterketa ofizialetara

***Iazko ekaineko deialdiarekin konparatuz, %46 ikasle gehiagok egingo dituzte probak.**

***Aurkezten direnen %23 gipuzkoarra da.**

***Azterketak Txinatar Institutuko Bilboko egoitzak antolatzen ditu eta Euskalduna Jauregian izango dira.**

2015/6/11

Igande honetan txinera-azterketa ofizialetarako deialdi berria ospatuko da. Txinatar Institutuak Bilbon duen egoitzak antolatua, 300 bat txinera ikasle inguru aurkeztuko dira Euskalduna Jauregian izango diren proba horietara. Matrikulen igoera nabarmena da, %46koa joan den urteko ekaineko deialdiarekin konparatuz, eta %200koa abendukoarekin alderatuz.

Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako txinera-ikasleek hartuko dute parte, baina baita beste zenbait lurraldeetatik iritsitakoak ere; hala nola, Nafarroa, Kantabria, Errioxa eta Burgos. Aurkezten direnen artean, erdia bizkaitarra izango da, %23 gipuzkoarra eta %17 arabatarra.

Probak goizeko 09:00etan hasi eta arratsaldeko 13:35ean amaituko dira. Denbora tarte horretan maila desberdinetako azterketak egongo dira, hasierako mailatik (HSK 1) bostgarrenera (HSK 5). Azkenengo hori eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko C1a balio berekoak dira eta gainditu ahal izateko txinerako 2.500 hitz baino gehiago ezagutu behar dira. Hori bai, matrikulen erdia hasierako mailletarako da (1 eta 2).

Azterketen iraupena ezberdina izango da mailaren arabera. Lehenengo mailan 40 minutuko iraupena izango du, 55 minutu bigarren mailan, ordu eta erdi hirugarrengan, ordu bat eta 45 minutu laugarrengan eta bi ordu eta 5 minutu bostgarrengan.

Azterketa ofizialak Txinera Atzerritar Hizkuntza Hezkuntzarako Bulegoak (HANBAN) kalifikatzen ditu. Azterketa horiek aukera ematen dute txinera maila egiaztatzen



INSTITUTO CHINO DE GIPUZKOA
GIPUZKOAKO TXINATAR INSTITUTUA

dituzten titulu ofizialak eskuratzeko. Horiek ezinbestekoak dira Txinako Fakultateetan sartzeko eta oso baliagarriak bai hemen zein Asiako herrialde horretan lan egiteko. Txinera jakitea eskatzen duten instituzio, erakunde eta enpresa guztiek erreferentzia bezala hartzen dituzte titulazio horiek.

Raquel Rodríguez
Komunikazio Arduraduna
Berastegui 5, 4 ezkerrekoa
48001 Bilbo
638 426 502 / 94 425 51 31
raquel.rodriguez@institutochinodebilbao.com
www.institutochinodebilbao.com



Raquel Rodríguez
Responsable de Comunicación – Komunikazio Arduraduna
C/Elkano 8, planta baja
20004 Donostia – San Sebastián
638 426 502 / 943 431 789
raquel.rodriguez@institutochinogipuzkoa.com

www.institutochinogipuzkoa.com

